

Kultura

Literatura ardatz hartuta, 'Hitzari gorazarre' zikloa antolatu dute Durangoko hainbat eragilek elkarlanean, azarorako. >14



Udazken koloretan, basoan, magia sortzen da. Hezetasuna lagun, arbolapeetan perretxikoak irteten dira, eta asko eta asko dira perretxikotan joaten diren zaleak. Durangoko Errotari elkarteak euren afizioaz gozatzen eta zaleei aholkua ematen dabilta. > 4

Udazkeneko magia



Lehior Elorriaga

Gerrako umeak omenduko dituzte 'Agurrik Gabeak' ekitaldian

Gerra Zibilean umeek izan zuten sufrimendua gogora ekarriko du Durango 1936 elkarteak Agurrik Gabeak ekitaldian, domekan, 19:00etan, Plateruenean. Sasoi hartan ume izandakoek gerraren krudeltasuna zelan bizi izan zuten azalduko dute jendaurrean. Karrika antzerki taldeak, berriz, 'Udaberririk ankerrena' antzezlan taularatuko du. > 6

“Athleticen esperientzia gertutik bizi izan dut, eta horrek lorratz ahaztezina uzten du”



Joseba Valladares | Iurretakoko zentrala >15

**ARKI
TEK
SAN**
ARKITEKTURA ESTUDIO TEKNIKOA
ESTUDIO DE ARQUITECTURA TÉCNICA

• OBREN ZUZENDARITZA

• PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK

• ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK

• ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK

• NEURKETAK, PLANOAK
ETA AURREKONTUAK EGITEA

• ERAGINKORTASUN
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK



WWW.ARKITEKSAN.COM



622 745 419



NIZETO URKIZU 12, ELORRIO



INFO@ARKITEKSAN.COM



ERAIKUNTZEN
IKUSKARITZA TEKNIKOA
AZTERKETA
259€tik AURRERA!

Iurretak > 9

Sarrionandiaren obra ardatz hartuta berriekiko dute biblioteca

Abadiño > 6

Armadaaren maniobrak kritikatzeko dituen mozioa onartu du udalak

Elorrio > 3

Bizikletak eta traktoreak saihesbidean ibiltzea gura dute

Zaldibar > 8

Kultur arteko jaiak, herrian bizi diren kulturen erakusleho

Herririk herri

Durango Udalak 1,3 milioi euro bueltatu beharko dizkio Bizkaiko Aldundiari

Aldundiaren zerga bilketa ez da uste bezala joan, eta udalek diru zati bat bueltatu behar dute



Durango Udalak 17,1 milioi euro jaso zituen Udalkutxatik, baina, azkenean, 15,8 izango dira.

DURANGO Markel Onaandia Herrietako udal aurrekontuetako diruaren zati handi bat Bizkaiko Foru Aldundiak ipintzen du, Udalkutxa deitzen den

poltsa baten bidez. Durangon, adibidez, 2016rako 17,1 milioi euro jasotzea aurreikusita zegoen. Baina, kontua da Aldundiak zerga bilketan ez duela jaso au-

rreikusita zeukan kopurua, eta horrela, herriek diru zati bat bueltatu beharko dute, aurrekontuak dagoeneko erabakita dituztenean. Durango Udalak

1,3 milioi euro bueltatu beharko dizkio Aldundiari.

Gaiaren harira, EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen martitzenean –Herriaren Eskubideak soilik babestu zuen–. Dani Maez-

Udal aurrekontuetako diruaren zati handi bat Bizkaiko Foru Aldundiak ipintzen du

turen ustez, Aldundiaren akatsa izan da: “Batzuek lana txarto egin dute, eta orain herritarrek ordaindu behar. Akatsa egin duenak onar dezala erantzukizuna”. Faltza den diruaren erdia Aldundiak bere gain hartzea proposatu zuen Maeztuk. Udal aurrekontuan “murrizketak” ekarriko dituela esan zuen.

Arrisku konpartitua
Aitziber Irigoras alkateak (EAJ)

azaldu zuen Udalkutxan arrisku sistema konpartitua dutela Aldundiagaz, eta horregatik bueltatu behar dela dirua, araua bete egin behar delako. “Inor ez zen kexatu 3 milioi euro bueltatu zizkigutenean”. Jorge Varela-ren (HE) iritziz, “hauteskunde urte batean aurrekontuak puzteko aitzakia bat” izan zitekeen gehiegizko aurreikuspena. “Diru bilketa txarto zihoala abisatuta geunden”. Pilar Ríos (PSE-EE) gogoeta beharraz ados agertu zen, baina ez EH Bilduren ideiegaz. Fran Garatek (PP) akatsa egon dela esan zuen, baina abstenitu egin zen.

DURANGALDEAN BUELTATU BEHARREKOA

Durango: 1,3 milioi euro
Zornotza: 855.000 euro
Abadiño: 363.000 euro
Elorrio: 339.000 euro
Berriz: 232.000 euro
Iurreta: 181.000 euro
Zaldibar: 147.000 euro
Atxondo: 69.000 euro
Otxandio: 66.000 euro
Mallabia: 65.000 euro
Mañaria: 33.000 euro
Garai: 20.000 euro
Izurtza: 16.000 euro



Herri Akordioa sinatzeko egin zen ekitaldia, irailaren 30ean.

Bilgune Feministaren kritika erasoen aurkako akordioari

Akordioa egiteko modua kritikatu dute feministek

DURANGO M.O. “Nola deitu daiteke Herri Akordioa jaien bezperan emailaz heltzen den dokumentua?”. Galdara hori egin du prentsa ohar bidez Durango Bilgune Feministak, udalak sustatutako erasoen aurkako akordioaren harira. Batez ere, modua kritikatu du: “Aurrelanketa behar du, proposamena adostea, elkarrekin osatzea... Eta ondoren, etenga-

beko lanketa bat, sinatzaileekin zein sinatu ez dutenekin”.

Prozesuaren balioaz

Hain zuzen ere, prozesuek duten balioaz berba egin dute feministek: “Prozesuak balio beharko luke norberarengan eraldaketa pertsonalen bat sortzeko, hausnartzeko, norbere praktikak aztertzeko”. Euren ustez, akordioa “logika horretatik kanpo,

proposamen partidista huts bat bailitzan” aurkeztu dute.

“Domina jartzeko”

Horrez gainera, mesfidati agertu dira sinadura batzuekin: “Egoera eraldatu beharrean, benetako urratsik eman ez duten askok domina jartzeko aitzakia izan da akordio hau”.

Akordiora 240 elkartetik gora batu ziren jaien atarian, eta testua sinatuta, hainbat konpromiso hartu zituzten.

Urriaren 12an eraso sexista bat jazo zen, eta jaiak ordu erdiz eten ziren hilaren 15ean. 23an mutil batek neska bat jo zuen, eta atzorako elkarretaratzea deitu zuen plataforma feministak.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko urriaren 28a
14. urtea - 651. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaandia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Zebra-bideetako istripuengatik kezka agertu dute bilkuran

Istripuei buruzko azterketa eskatu dute Herriaren Eskubideak eta EH Bilduk

DURANGO Markel Onaindia Autoek harrapatutako oinezkoen kasu ugari egon da azkenaldian Durangon, eta Herriaren Eskubidea eta EH Bildu alderdiek kezka agertu zuten osoko bilkuran, galderen tartean. Udalari gaia aztertzea eskatu zioten.

Julián Riosek (HE) hausnarketa bat eskatu zuen, harrapaketak ugaritu egin direlako. Istripuak gertatu diren lekuen azterketa bat eta segurtasunari lotutako kanpaina bat egitea proposatu zuen, adibide lez.

Dani Maeztuk (EH Bildu) bat egin zuen eskaeragaz. Gogoratu

zuen mugikortasun estrategien harira semaforoak kendu zirela Durangon, eta “erabaki ona izan zela pentsatzen jarraitzen” duen arren, gaia berraztertu behar dela uste du.

Asteburuko istripuak

Joan zen domekan, auto batek pertsona bi harrapatu zituen Madalenen, eta batek zauri larriak eduki zituen. Barikuan, Larrasoloeta kalean jazo zen



Durangon ez dago semafororik, Ermodo amaieran kasurako.

Lekuen azterketa bat eta segurtasunari lotutako kanpaina bat egitea proposatu zuen

istripua, eta gizon bat ospitalera eraman behar izan zuten hankan zeuzkan zauriengatik. Azken hileetan izandako hainbat istripuren adibide bi baino ez dira.

Beronika Solagurennek irabazi du argazki lehiaketa

Belaunaldi berriak dantzan islatzen ditu argazkiak

IZURTZA Joseba Derteano Beronika Solaguren Martin Izurtzan bizi den 31 urteko atxondarrak irabazi du Izurtzako jaietako argazki lehiaketa. 100 euroko saria irabazi du. Maialen Sarasua Cendoia izan da bigarrena (75 euro) eta Iker Laka Barandika hirugarrena (50 euro).



Argazki irabazlea.

Solagurennek zalea delako atara zituen argazkiak jaietan, eta lehiaketaren berri jakitean aurkeztea erabaki zuen. ‘Belaunaldi berriak dantzan’ izeneko argazki irabazlean bere seme Unax Mandaluniz lepoz ageri da, eszenatokira begira, musiki

Maialen Sarasua Cendoiak irabazi du bigarren saria, eta Iker Laka Barandikak hirugarrena

karen zain dantzan hasteko. Aita eta ama ere dantzariak ditu, eta etxetik datorkio afizioa.

Urte eta erdi duen semea jaio zenean, urtero ateratzen zituen argazkiekin albumak egitea erabaki zuen Solagurennek: “Aurretik ere egin izan ditut albumak, baina Unax jaio zenean, urtero egitea erabaki nuen”.

Herritarrek harreman zuzena edukiko dute aurrekonturako

2017ko aurrekontua zehazteko prozesua martxan dago Elorrioko Udalean



Jon Ander Gracia zinegotzia eta Idoia Buruaga alkatea, prentsaurrekoan.

ELORRIO M.O. 2017ko egitasmoak zehazteko, udal aurrekontua lantzeko prozesu parte-hartzailea hasi du udalak, eta gobernuako kargudunek harreman zuzena edukiko dute herritarrek. Idoia Buruaga (EH Bildu) alkatearen arabera, aurreko aldietan –EAJ-ren gobernupean– enpresa bidez gestionatu dira batzarrek,

baina kasu honetan, zuzenean jaso gura dute iritzia.

Eguaztenean egin zuten lehen batzarra elkarteekin, eta azaroaren 9an landa eremuko auzokideekin batuko dira. 16an, herritar guztiei zabalduko batzarra burutuko dute, udal txean, 19:00etan. Beste hainbat auzo edo gunetan ere deituko dute jendea, eta aurten inoiz bai-

no leku gehiagotara joango dira, gainera, Buruagaren esanetan.

Bestalde, Jon Ander Gracia zinegotziak azaldu du “inbertitzeko gaitasun oso txikia” geratuko zaiela, Aldundiko Udal-kutxaren ekarpena bajatuko delako. Iaz 300.000 euro bajatu zen, eta aurten beste 184.000. Graciak dioenez, 7 milioi inguruko aurrekontutik 4 bat dira Aldundiak ematen dituenak. Horregatik, “eragin nabarmena” duela uste du. Hala ere, udalaren egoera ekonomikoa ona dela dio.

“Gardentasun falta”

Gobernuak martitzenean eman zuen prentsaurrekoa. Astelehenetan, EAJk kritika egin zuen, esanez prozesutik kanpo utzi dituztela. Hori dela-eta, “gardentasun falta” egotzi zion gobernuari. Buruagak erantzun zuen EAJk bazekiela martitzen goizerako batzordea deituta zegoela, eta “harrituta” hartu dute kritika. Gonbidatu arren, udaleko hainbat batzarretan parte hartu ez izana egotzi zien jeltzaleei.

Autobidean, bizikletari eta traktoredunak ez

Saihesbideko debekuari buelta eman gura diote

ELORRIO

M.O. Udalak arte Elorrioko saihasbidea zena Gerendiaga-Elorrio autobide barruan kokatu da bide berria zabaltzeagaz, eta Elorrioko tartea ere autobide lez izendatu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Modu horretan, txirindulari eta traktoredunak bertatik ibiltzeko debekua dute, orain arte ez bezala. Horri buelta eman gura diote.

Udalak adierazi du herritar askok jo dutela eurengana, alda-

ketagatik kexu. Orain, herri barrutik joan behar dute bizikletan zein traktorean doazenean. Idoia Buruaga alkatea gutuna bidali du Aldundira, San Agustinetik Iguria auzorainoko tartearen izendapena lehengora ekartzeko eskatzeko.

Bestalde, Iguria auzotik herrigunera zihoan oinezko bide bat itxi egin zen duela urte batzuk, eta egoera horri konponbidea ematea ere eskatu dio udalak Aldundiari.



Debekuaren berri ematen duten kartelak daude autobide sarreretan.

“Durangaldean perretxiko espezie asko daude, arbola aniztasun handiagatik”

Perretxikoen sasoi betean, zaletasunaz eta euren ekintzez berba egin dute Errotari elkartekoek



Ezkerretik hasita, Plácido Iglesias, Ramon Martínez, Esteban Ruiz eta Joseba Ortiz de Zarate.

DURANGALDEA M.Onaindia Hostoak jausten hasi dira, eguna laburtzen, gorputzak hozten... Udazkenean gaude, udatik negurako bidean. Batzuek, aka-

so, ez dute urtaro hau gustuko, baina beste hirurek lez, baditu bere berezitasunak ere. Udazken koloretan, basoan, magia sortzen da; hezetasuna lagun,

arbolapetan perretxikoak irteten dira, etxe ugaritako jaki preziatuak. Lehen euriteekin batera, asko eta asko dira basorako bidea hartzen dutenak, eskuan otzara dutela. Durangoko Errotari elkarteko kideak dira horietako batzuk, 16 urtez afizioa disfrutatzen eta erakusten dabilzanak. “Duela 16 urte ez nekien rusula bat zer zen ere”, dio barrez Ramon Martinezek.

Durangaldea perretxikoak batzeko leku ona al da? Urkiola, Oiz... Badu erantzuna Plácido Iglesiasek: “Ez da kopuru masiborik irteten, Sorian lez, adibi-

Txikiak hartuz gero, 50 behar dituzu otzara betetzeko”. Durangaldean ez ei dira ibiltzen perretxikoekin negozioa egiten dutenak. Hauxe da arazoa Ruizen iritziz: “Fama handia hartu du, eta diru asko mugitzen du. Basoa kaltetzen dute, guztia baten dutelako”.

Errotariren aholkuak

Sarritan ez da jakiten hartutako perretxikoa zer den, edota jan ahal den ala ez. Zalantzak baztertzeko, herritarrek Errotari-koengana jo dezakete astelehenetan, 19:30ean, Intxaurren dute lokalera –Behargintzaren atzealdean–. Izan ere, informatzea ere bada elkartearen funtzio bat. “Batzuk beldurtuta

“Igartzen da afizioa igo egin dela, batez ere Interneteko foroetan-eta. Jubilatu asko ere badago orain”

dez. Hemen, espezie asko daude, arbola aniztasun handia dagoelako”. Badu zerbait berezitik, beraz. Afizioa igo dela uste dute. “Igartzen da afizioa igo dela, batez ere interneteko foroetan-eta. Jubilatu asko ere badago orain, langabeak... Afizio polita da”.

Hori bai, perretxiko lar ez hartzea eskatu du Esteban Ruizek, naturan eta besteengan pentsatzeko: “Hazten direnean, hamarregaz bete duzu otzara.

etortzen dira asteburuan hartu dutenagaz”, esan du Joseba Ortiz de Zaratek. Iglesiasek jarraitu du: “Intoxikazio asko saihestu ditugu. Amanita muskari-ekin ere ikusi dut jendea!”.

Errotarin talde tekniko bat dago, perretxikoen azterketaz arduratzen dena. Mikroskopia eta guzti egiten dituzte analisiak. Hemengo aholkularitza aparta, kanpoko ere aztertzen dute. Iglesias da teknikarietako bat. “Kanariar irletan, munduan orain arte topatu bako

“Kanariar irletan, munduan orain arte topatu bako perretxiko berri batzuk topatu ditugu”

perretxiko berri batzuk topatu ditugu; irletan berriak diren 200 mota, guztira. Gure aldizkarian argitaratzen ditugu aurkikuntzak”. Urtero kaleratzen dute aldizkariak izen ona dauka, European ere bai. Perretxikoen deskribapen zehatzak datoz aldizkari mardulean, eta amaierako orrietan Ortiz de Zarateren errezeta batzuk ere bai. Perretxikoak fideuan, olagarroagaz, sukalkian...

450 bazkide

Gaur egun 450 bazkide ditu Errotari, horietako batzuk kanpokoak. Kanpoan dute erreferentzia hori hemen ere badute. Izan ere, hainbat elkarteri laguntzen diete, eta berbaldiak, ikastaroak, erakusketak eta antzerakoak antolatzen dituzte beste herrietan. Asteburu honetan, esaterako, Otxandion egongo da Ortiz de Zarate, bertako perretxikozaleei informazioa ematen. Zornotzan, Abadiñon eta Atxondon ere badaude mikologia taldeak. Elorrioren erakusketa ipini zuten joan ze domekan.

Durangoko jaietan erakusketak burutu berri dute Errotari-koek, eta hurrengo hileetarako badute ekintzarik. Baina, orain udazkena da, perretxikoen magiaz gozatzeko sasoa.



San Fausto jaien barruan, erakusketa prestatu zuten Errotari-koek.

ibaizabal DOAKO IKASTAROAK

2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROEEN ESKAINTZA

PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA

Ur instalazioetako sorospena	290 ordu	2016/11/2
“Atención Sociosanitaria a personas dependientes en instituciones”	370 ordu	2016/11/7
Lan orientazioa eta Lanbide Heziketako enpleguaren kalitatea sustatzea	30 ordu	2016/12/19
Gatazken prebentzioa	70 ordu	2016/12/22
Enplegurako prestakuntza-ekintzen programazio teknikoak	60 ordu	2017/01/30
Ur eremu Naturaleko sorospena	180 ordu	2017/02/20

ESKAINTZA IREKIA

Sare Sozialak enpresaren komunikaziorako tresna	20 ordu	2016/11/7
Hezkuntzarako google tresnak eta web aplikazioak	20 ordu	2017/01/11
Psikomotrizitatea nagusientzat	20 ordu	2017/01/12

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA

Tel.: 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
www.ibaizabalikastola.eus



Abadiñon eta Zornotzan ere herri galdeketak egingo dituzte

Gure Esku Dago dinamikaren herri batzar banatan hartu zuten erabakia



Erabakitze eskubidearen alde Durango eta Iruñea lotu zituen giza kateko irudia. Galder Gaztelu-Urrutia

DURANGALDEA J.Derteano Durangaldeko Elorrio, Durango, Zornotza eta Abadiño herrietan herri galdeketak egingo dituzte 2017an erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamikek bideratuta. Abadiño eta Zornotzako GED elkarteek joan zen astean iragarri zuten herri galdeketa egingo

zutela. Gaia herri batzar banatan plazaratu eta eztabaidatu ostean hartu dute erabakia. Zornotzako GED-ek “erabakitze eskubidea praktikara eramatea erabaki du, herritar guztiei galdeketa eginez”, hedabideei helarazitako oharrak jasotzen duenez. Hasi berri duten prozesu horrek “zabala, gardena eta

anitza” izan gura duela azaldu dute. Herri bietako dinamikek herritarren parte hartzearen garrantzia azpimarratu dute: “Orain arte gugaz izan zareten guztion lankidetzeta eta elkarlana behar beharrezkoak ditugu erronka hau arrakastatsua izan dadin”, dio Abadiñoko GEDek.



Interesdun ugari batu zen aurkezpenera, antolatzaileei entzuteko.

Berbalagunek hasi dute ikasturte berria

Eguaztenean egin zuten aurkezpena Plateruenean

DURANGALDEA M.O. Euskaldun berrientzat edota ahozketasun maila hobetu gura dutenentzat, sarri ez da erraza izaten euskara praktikatzeko eremuak topatzea, eta Berbalagun egitasmoak aukera hori eman gura du. Euskara praktikatzeko gune eroso bat eskaini, maila hobetu eta konfiantza irabazteko. Durangaldeko berbalagunek hasi dute ikasturte berria, eguaztenean Plateruenean

egindako aurkezpenagaz. Aitor Lopez Amankomunazgoko presidenteak berba egin zuen sarreran, esaterako. Izan ere, Amankomunazgoak, udalek, AEK-k eta Berbarok sustatzen dute egitasmoa, besteak beste. **Parte hartzeko** Berbalagunen parte hartu gura dutenek 639 400 786 telefono zenbakira deitu ahal dute, edota durangaldea@aei.org helbidera idatzi.



Magdalena

lencería

Ermodo kalea, 27 - Tel.: 94 402 40 43 - DURANGO

Neurri handietan espezializatutako denda

- Aholkularitza pertsonalizatua ·
- Denboraldi berria lentzerian eta pijametan ·
- Kopak: A / B / C / D / E / F / G ·



Gerrako umeak omenduko dituzte Agurrik Gabeak ekitaldian, domekan

Karrika antzerki taldeak 'Udaberririk Ankerrena' antzezlanaren taularatuko du



Iazko ekitaldiko argazkia, Kurutziagan.

DURANGALDEA I.E. /J.G.

Gerrako umeen sufrimendua gogora ekarriko dute Agurrik Gabeak ekitaldian, domekan, 19:00etan, Plateruenean. Durango 1936 elkarteak azaldu duenez, "hemen gelditu ziren umei zein erbestera joan zirenei omenaldi xume bat egitea da asmoa". Kristina Mardasek gidatuko duen ekitaldian ume zirela Gerra Zibila lehen pertsonan bizi izan zuten hainbat lagunek beraien testigantza azalduko dute jendaurrean. Eskarne Aroma durangarra, Iñaki Gorritxategi berriztarra, Felix Arruti iurretarra eta Maria Igarza elorriarra izango dira umetan gerra zelan bizi izan

zuten kontatuko dutenak. Laurogei urtetik gora pasatu diren arren, pertsona hauek gerraren akordua argi-argi dute memoriari grabatuta.

Urtero legez, Tronperri dantza taldeak aureskua eta lore-eskaintza ere egingo ditu. Horrez gainera, Bidane Txopiteak eta Jasone Turunbaik Agurrik Gabeak kantua abestuko dute. Abesti honen letra Unai Iturriaga bertsolariarena da, eta Ander Ertzillak musikatuta dago. "Abestia denok batera kantatzea gurako genuke".

Udaberririk ankerrena

Jarraian, Unai Iturriagak eta Alex Sanvik sortutako *Udaberririk ankerrena* komikian oinarritutako antzezlanaren taularatuko du Karrika antzerki taldeak. Komiki honetan, 1937ko martxoaren 31n Durangon eta Elorrioren gertatutako bonbardaketak azaltzen dira, bi umeren ikuspuntutik.



Futbol-zelaia belar artifizialagaz.

Azaroan zehar prest izango da Mainondoko futbol-zelaia

OTXANDIO J.D.

Mainondon belar artifizialagaz jantzitako futbol-zelai berria prest izango da azaroan zehar. Belar artifiziala jarrita dago, eta orain bestelako lan batzuk amaitzea falta da erabilgarri egoteko. Aurretik, hareazko zelai bat zegoen bertan. Berriaren neurriak aurrekoaren erdia dira. Bere sasoian, Vulcano futbol taldeak entrenamenduetarako belar artifizialeko zelai baten beharra plazaratu zien udal ordezkariari, ohikoa baino zelai txikiagoa ere nahikoa zutela argituz, eta azpiegitura berriak behar horri erantzun gura dio. Horrela, sobratu den materialari zer irteera eman pentsatzen dabilta.

Belar artifiziala bigarren eskukoa da. Bere sasoian, Durangoko Kulturalaren zelaian zegoen. Zelai berria, Vulcanorentzat ez ezik herritar denentzat ere erabilgarri egongo da.

Omenaldi jendetsua Zaldibarren

Frankismoan hildako zaldibartarrei omenaldia egin zieten domekan, lehenengoz. Frontean, erbestean zein bonbardaketetan hildakoak eta desagertutakoak hartu zituzten gogoan udaletxeko plazan egin zuten ekitaldian. Asteartean

80 urte bete ziren 36ko altxamendu faxistaren ondorioz Zaldibarko lehenengo biktima hil zela, eta horregatik erabaki zuten omenaldia urriaren 23an egitea. Eibarko Amuategi batailoiko kide izan zen Primo Bastida Garitagoitia milizianoa izan zen Zaldibarko lehenengo hildakoa; Irunen hil zen, faxismoaren kontra borrokan jasandako zaurien ondorioz, 26 urte zituela.



Lore eskaintza egin zuten plazako oroitarri berrian. Delfin Zubizarreta

Gaztetxearen 18. urteurrena gogora ekartzeko, aste osoko ospakizuna

Asteburuko ekitaldiekin amaituko dute urteurreneko egitaraua

ABADIÑO Aimar Esteban

Abadiñoko Gaztetxeak hamazortzi urte bete ditu. Aste osoan hainbat ekintza burutu dituzte, eta asteburu honetan jarraitu egingo du ospakizunak. Aurten, Abadiñoko Gazte Asanbladako Iker Salterainek azaldu duenez, "aste bitartean ere prestatu gura genituen ekintzak, adin guztientzat egitarau zabal bat".

Gaur, umeentzako askaria eta jolasak egingo dituzte, 17:00etatik aurrera. Biharkoa izango da ekintza gehien izango dituen eguna. Goizean, bizikleta martxa egongo da, eta ondoren, 14:30ean, baba jana izango dute. Bazkariaren ostean, jolasak egingo dituzte, eta Txapito Guzman eta Ibarrako langostinuen taldeak animatuko du giroa. 22:30etik aurrera, Storm eta Nevadah-ren kontzertuak izango

dira gaztetxeko oholtzan. Gaur DJ gaztetxeroagaz amaituko da.

Urte hauetako balantzea egiterako orduan, Salterainen iritzian gaztetxeak "fase ezberdinak bizi izan ditu. Orain, herri guztira zabaldu gura dugu, denetarik gazteak etor daitezen". Etorkizunari begira lanean

dabilta Abadiñoko Gazte Asanbladatik. "Gizartea aldatu egin da, eta ohartu gara jendeak ez daukala hasieran zeukan grina sistemari aurre egiteko. Hala ere, hainbat proiektu eraman gura ditugu aurrera, eta gazteak erakarri", adierazi du Iker Salterainek.



Abadiñoko Gaztetxeak hainbat ekitaldi prestatu ditu 18.urteurrena ospatzeko.

Armada "erakunde arrotz gisa" hartzen du udalak

Abuztuko maniobrei buruzko mozioa onartu dute

ABADIÑO Itsaso Esteban

Espainiako armadak abuztuan Urkiolan egin zituen maniobra kritikatzen dituen mozioa adostu dute EH Bildu eta EAJ alderdiek, eta martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten. "Abadiñoko Udalak Espainiako armada erakunde arrotz gisa hartzen" duela dio, besteak beste, EH Bildu eta EAJko zazpi zinegotzien aldeko botoak jaso zuen idatziak. Idatzi horren kontra bozkatu zuten, aldiz, Abadiñoko Independienteak taldeko bost ordezkariak.

Udalean ordezkaritza daukaten hiru alderdiek idatzi bat adosteko asmoa agertu zuten iraileko osoko bilkurara begira, armadaren abuztuko maniobra salatzeke, baina, azkenean, Abadiñoko Independienteek ez dute mozioa babestu.

Urriko ohiko osoko bilkuran onartutako mozioan azaltzen denez, "udalbatza honek onartezintzat jotzen du horrelako jarduerak militarrek gure zonaldeetan egitea, zeren eta udalari eta bere eskumenei erakutsitako errespetu faltaz gain, kaltea eragin diezaieke herritarrei, ondasunei eta ingurumenari".

Espainiako Defentsa Ministerioak ez zion udalari maniobra horien berri eman, eta horregatik, "Abadiñoko Udalak kezu da erakunde publiko lokalak jakinaren gainean ipini barik, udalerrian sartu eta maniobra egin dituztelako". Onarturiko idatziak azken puntuan jasotzen duen bezala, Abadiñoko Udalak Espainiako Defentsa Ministerioari jakinaraziko dio martitzeneko osoko bilkuran onartutako adierazpen hori.



Alikona markako 3Dko zehaztapen handiko mikroskopioa du, lehenengoa estatuan; horrela piezaren argazki mikroskopikoa ateratzen da eta bere alderaketa automatikoa CDA-CAM dokumentuagaz.

EKIN enpresak 3,5 milioi euro bideratuko ditu zelula aeronautikora

500 metro karratuko azalera duen espazioa 2017 hasierarako prest izatea aurreikusi dute



ENPRESA J.G.

EKIN kooperatiba elkartek bere zelula aeronautikoaren aldeko apustu argia egin du. Orain arte, gune honek 250 metro karratu izan ditu. Baina, 2017tik aurrera, espazio hori bikoiztu egingo da, 500 metro

karratu izango baititu. Zelularen zabalkundera enpresak 3,5 milioi euro bideratu ditu.

Aktibitate honen garapenak goranzko joera duela erakusten dute fakturazio datuek. 2015ean, negozio aeronautikoaren arloan, 600.000 euro-

ko fakturazioa izan zuten, eta jardunaldi honetan zifra hori hirukoiztea aurreikusi dute, 2 milioi eurora helduz.

Zehaztasun handia

Aeronautika arloan, EKIN turbinen osagarri kritikoen zehaz-

tasun handiko mekanizatuan espezializatu da. Hegazkinetako motoreen piezak ekoizteko lanak hamar urterako lan-kargara finkatu du.

Lehiakorrek sektorean

EKINEk sektorean dituen hazkunderako perspektibak brotxatuaren teknologiaren garapen propioan oinarritzen dira. Horrela, prozesuaren denboran jaitsiera nabarmena izaten da, eta hori abantaila handia da merkatuan lehiakorrek izateko. Momentu honetan, Zornotzako EKIN enpresan 200 langilek dihardute. Lan-talde horretatik 20 lagunek zelula aeronautikoan dihardute.

EKINEk sektorean izan duen garapena kooperatibak erabakitako estrategiaren ondorio da. 1963an sortutako enpresa Ner Group taldean integratu zen, 2008an.

Anbizio handiko helburuak

2009an sektore aeronautikoan izandako salmentak 100.000 eurokoak izan ziren. 2020. urterako, berriz, 5 milioi euroko estimazioa egin dute. Estrategia hau automozio sektoreko aktibitatearen internazionalizazioan oinarritzen da. Orain arte, aktibitate horrek bere produkzioaren %95 osatu du. Gai nontzekoa, arlo aeroespazialaren eta energiaren esparruaren dibertsifikazioan oinarritu da. Aeronautika arloan urrats bat gehiago eman guran, 2015ean EKIN Hegan Euskal Herriko aeronautika eta espazio klusterre bateratu da.

Bost zentro propio

EKINEk bost zentro propio ditu hiru kontinentetan: Ekin Zornotza eta Lemoa, Ekin India, Ekin Brasil, Ekin Mexiko eta Ekin-CDM Italia.



EKINen lan-talde osofik, 20 langilek zelula aeronautikoan dihardute.

ekin

ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es

ner group

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Bigarren urtez egingo dute Zaldibarko Jendeak kulturarteko jaia, bihar. Iaz lehenengoz egin zuten bezala, Zaldibarren bizi diren jatorri desberdinetako herriarrek elkar ezagutu eta harremana egin dezaten bultzatzeko helburuz antolatu dute jaialdia. Bihar, Euskal Herria etorbidea itxi egingo dute udal-terre parean, Zaldibarko Jendeak jaialdia hartzeko.

Hango eta hemengo musikak girotuko du jaialdiaren hasiera: trikitilarien eta perkusionisten kalejira 11:00etan abiatuko dute, eta umeentzako jolasak eta tailerrak ere izango dira: hennagaz tatuatu edota trentzak egiteko aukera egongo da, hainbat jatorritako herrikideen eskutik.

Goizean musikagaz hasitako ekimena jan-edanean jarraituko dute. Kultura desberdinetako janariak prestatu eta dastatuko dituzte 12:30ean, eta bazkari herrikoia 14:30ean egingo dute. Iaz, 200 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera, eta gehiago espero dituzte aurten. Kolonbia,

‘Zaldibarko jendeak’ kultur arteko jaia egingo dute, bihar, bigarrenenez

Herrian bizi diren kulturen erakusleho izango da biharko jaialdia

Mendebaldeko Sahara, Mali, Senegal, Portugal, edota Kubatik etorritakoek parte hartuko dute, besteak beste, jaialdian.

Biharko jaiaz haratago, herrian kultur arteko harremana urte osora hedatzeko, herrira datozei harrera egingo dien

taldea sortzeko lanean dabilta Zaldibarren: etorkinentzako gida bat argitaratuko dute, eta protokolo bat ipiniko dute martxan.



Iaz egin zuten Zaldibarko Jendeak jaia lehenengoz. Delfin Zubizarreta

Titan Desert proban bizitakoa kontatuko du Txakartegik

ATXONDO J.Derteano

Ander Txakartegi berriatuarak sei etapako Titan Desert MTB proban parte hartu zuen iaz, Marokoko basamortuan. Abentura hartako bizipenak oinarri hartuta, azaroaren 4ko barikuan, 18:30ean, hitzaldia eskainiko du Atxondoko udalbatzar aretoan.

Asuntze Mendi Taldeak antolatu duen mendi astearen osagaietako bat da Txakartegiren bisita. Horrez gainera, azaroaren 3ko ostegunean, 19:00etan, mendian jarraitu beharreko elikadura eta hidratazioari buruz jardungo da gaian aditua den Oihana Monasterio.

Azkenik, azaroaren 5ean, bigarren mendi bizikleta martxa antolatu dute: 40 kilometro ditu, eta 1000 metroko desnibela.

The Bon Scott Bandek, Vendettak eta DJ Bullek joko dute urriko jaietan

Hainbat kultur eta kirol ekintza antolatu dituzte Mallabian hileko azken asteburuaz gozatzeko

MALLABIA Aimar Esteban

Urriko jaien egitaraua ekitaldiz beteta dator Mallabira. Barikuan hasiko dira jaiak. 18:00etan, txupinazoa bota aurretik, buruhandiak egongo dira umeentzat. Ondoren, oilasko pintxoak banatuko dituzte, plazan. Iluntzean erromeria izango da Akerbeltz taldearen eskutik.

Zapato goizean, berriaz, duatloi txikia jokatu dute 11:00etan, eta ardo feria egingo dute 12:00etan. Arratsaldean, li-txarrerria tailerra prestatu dute umeentzat.

Zapato gauean izango da jaien kontzertu nagusia. 22:30etik aurrera musikari ezagunak igoko dira Mallabiko taula gainera. The Bon Scott Band, Vendetta eta DJ Bull gonbidatu dituzte urriko jaietara.

Domekan, 17:00etan, *Tomasen abenturak* pailazoak egongo dira frontoian umeen gozamenarako. Karta-jokoa gogoko dutenek, aldiz, mus txapelketa izango dute aukeran. Kontzejuzarrean. Amaitzeko, 18:30ean, txokolata banatuko dute plaza bertaratzen direnen artean.

Animen Gaua, lehengo ohituretara itzuliz

BERRIZ M.Z.

Kalabazak hustu eta barruan kandela jarrita, urriaren 31 festa giroan ospatzen dute askok. Halloween izenez ezagutzen den festa hori, XX. mende hasierarako Euskal Herriko hainbat herritan egiten zuten, esaterako Berrizen. Izara zuri bat jantzi, eta kalabazekin atonduta zeuden kaleetatik barrena ibiltzen ziren, Animen Gaua ospatuz.

Urteak dira ohitura hori galdu zela, herriko beste hainbat tradiziogaz batera. Beraz, egoera horri buelta eman eta herriarrei lehengo ohituren berri emateko asmoz elkarlanean hasi dira udala, herriko ikastetxeak eta aisialdi taldea.

Poltsa artistikoak opari 25 eurotik gorako erosketan

Azaroaren 25era arte iraungo du kanpainak

ZORNOTZA J.Derteano

Zornotzako Dendariak elkar-teak ‘Erosketa Artistikoa’ kanpaina abiatu du asteon, eta azaroaren 25era arte iraungo du. Elkartearen barruan dauden establezimenduetan 25 eurotik gorako erosketak egiten dituenak opari bat jasoko du: Zintzilik lehiaketan jasotako irudiekin apaindutako poltsa. Astero aldatu egingo dituzte poltsetako irudiak.

Enrike Rementeria pintura lehiaketako atal bat da Zintzilik. Irudi artistikoekin apaindutako olanak balkoietan zintzilikatzen dira. Lehiaketa horretara aurkeztutako lane-

tako batzuk erabiliko dituzte poltsak apaintzeko.

25 euroko erosketak ez du zertan izan aldi batekoa. Hau da, eros-txartelak eta fakturak pilatu egin daitezke kopuru horretara heldu arte.

Poltsak Dendariak elkartearen Luis Urrengoetxea kaleko bulegoan jaso daitezke, aste-lehenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara. Betiere, erosketako txartelek batera NANA era-kutsi beharko da.

Aste bakoitzean, aste horretarako beren beregi ateratako poltsak banatuko dituzte, betiere ateratako izakinak amaitu arte.

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

hitz
liburudenda

artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT



ALSINA
Xabier Mendiguren (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT



SAGARRAREN MISTERIOA
Paddy Rekalde & Belatz (2016)

MUSIKA



OM
Izaro Andres (2016)

Sarrionandiaren obra ardatz duen ikuskizuna biblioteka zabaltzeko

Gaur aurkeztuko dute prestatutako ikuskizuna bibliotekan, 19:00etan



Ikuskizunean parte hartuko duten hainbat lagun izan dira asteon egindako agerraldian.

IURRETA A.B.
Joseba Sarrionandiaren obra oinarri duen ‘Garai Berri eta Garaizar’ ikuskizun literarioagaz inauguratuko dute, gaur, biblioteka eraberritua. Askotariko arte adierazpenez osoturiko ikuskizuna da, Iurretako eta inguruko artista eta diziplina askotariko pertsonen elkarlanari esker sortutakoa. Dena den, biblioteka azaroaren 2an zabalduko dute, ohiko ordutegian eta zerbitzu guztiekin. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, “Sarrionandia, bai literaturan, bai musikan,

lan oparoa duen idazlea izanik, herritarren artean bere lana ezagutarazteko aukera paregabea da” sei hilez itxita egon den

‘Garai Berri eta Garaizar’ ikuskizun literarioagaz inauguratuko dute, gaur, biblioteka eraberritua

liburutegiaren berrirekiera. Literaturak, bertsolaritzak, musikak, kantuak eta dantzak egingo dute bat bertan. Kristina

Mardarasen hitzetan, “herriko taldeak gara gehienok, eta bihotza jarri dugu ekitaldian”. Mardaras bera, Peru Magdalena, Eneko Abasolo ‘Abarkas’, Gorka Lazkano, Uxue Alonso, Eunete Zarrabeitia, Aitor Astigarra, Iurretako Korroa, Iurretako Mikel Deuna dantza taldea eta L’Atelier dantza eskolako dantzariak arituko dira. Bibliotekan izango da, 19:00etan. Apirilean hasitako lanek “baliabideak optimizatzea eta biblioteka gaurkotzea” izan dute helburu; 200.000 euroko aurrekontua izan dute.

Zuntz optikoa heltzeko lanetan dabilta Garain

GARAI M.O.
Azken egunetan, zuntz optikoa heltzeko lanetan dabilta Abadiñotik Garaira bidean. Telefónica enpresako beharginak kableak aldatzen dabilta, eta, momentuz, gaiaz informatu ez arren, badirudi laster Internet konexio sendagoa helduko dela Garaira. Izan ere, konexio eskasa dute herrian, eta nahiz eta udalak wi-fi antenak ipini egoerari irtenbide bat emateko asmoz, arazoak ez dira desagertu.

Haurrekin euskaraz jolasten ikasteko saioak

MAÑARIA M.O.
Umeen heziketa euskaraz egin gura arren, sarri zaila izaten da tresnak lortzea, eta jolasekin gertatzen da hori. Beraz, haurrekin euskaraz jolasten ikasteko saioak antolatu dituzte Mañarian, Zabu Zibu ekimenagaz. Gaur –hilak 28– eta azaroaren 4an, herriko pilotalekuan elkartuko dira ume eta gurasoak, eta dinamizatzailerik baten laguntza edukiko dute. 17:30etik 18:30era izango dira saioak.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Andoniren OHZ, Josebaren OHZ

Andoni Durangoko Askatasun Etorbidean bizi da, orain dela 25 urte erositako etxe batean. Joseba, bere laguna, Pagasarri kalean, Andoniren etxetik 200 metrora. Orain dela 20 urte erosi zuen Andonik etxea. Etxe biak antzekoak dira, eta 85 m2 dute. Lehengo egunean Herria tabernan elkartu ziren, ostiraleko pintxo potean. Andonik, lagun-taldera heldu bezain pronto, bota zuen: “Heldu zaizue OHZren agiria? Nirea 300€ izatetik 700€ izatera pasatu da, oraindik dardarka nago”. Josebak harrituta begiratu zion. “Ziur zaude? Niri 300€tik 270€ra jaitsi didate eta”, esan zuen. Zuritoak gora eta zuritoak behera, Andoni etxera joan zen, bere etxeko OHZ-rekin gertatutakoa ulertu ezinik. Hurrengo egunean egunkari batean irakurri zuen jende asko zegoela bere egoera berean. Egunkari horretan gobernu taldearen bozeramaile bihurtu omen den alkateordeak esaten zuen diru-laguntzak egongo direla irizpide sozialak jarraituta. Baina Andonik ez du nahi diru-laguntzarik. Andonik nahi duena da jakitea zein izan den irizpidea bere etxearen eta Josebaren etxearen arteko ezberdintasuna justifikatzeko. Hain zaila da udaletxeko buroietatik kalera irtetea eta azalpen ulergarri bat ematea herritarrei?

DURANGALDEA ASTEON

Errigoraren kanpaina berria martxan dago

DURANGALDEA > Azaroaren 8ra arte Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina parte hartzeko aukera egongo da. Produktuz betetako otzara bi eskaini dituzte, eta erosketagaz, Nafarroako nekazaritza eta euskara bultzatuko dituzte. www.errigora.eus webgunean egin ahal da eskaria.

Umeen Euskal Jaia egingo dute Durangon

DURANGO > Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek antolatuta, 450 ume eta gazte batuko dituen dantza eguna egingo dute Durangoko kaleetatik zehar, domekan. 11:30ean kalejiragaz hasiko dute jaia; arratsaldean alardea egingo dute. 17:00etan, Durangaldeko hainbat taldek egingo dute dantza Ezkurdiko plazan.

Perretxikoei buruzko erakusketa Otxandion

OTXANDIO > Udazkena perretxikoen saioa da, eta Otxandion eta bere inguruetan bila joateko paraje aproposak daude. Perretxikoei buruz gehiago jakiteko, gaur, 19:00etan, jangarriak direnei eta ez direnei buruzko hitzaldia egongo da kultur etxean. Domekan, berriz, erakusketa antolatuko dute Kontseilupean.

IRITZIA

Sagar ustelak

Baserriko otzara zaharrean forma eta kolore guztietako sagarrak doguz. Guztiak baserriko zuhaitzetakoak izan arren, batzuk batu barriak dira, berde dagoz ondino. Beste batzuk jateko puntu-puntu dagoz, baina baserriko otzaran denbora lar emon eta jateko helduegiak diranak be badagoz. Jakina da, sagar bat usteltzen danean otzaratik atara ohi dogula, gainontzeko sagarrak kutsatu ez daitezan. Euskal Herriko dantza tradizionala otzara zaharra lez ikusten dot nik. Batetik, dantzan hasi barriak dagoz, aurreiritzi bakoak. Bestetik, dantzan urteak darioezanak, dantzari finak eta ez horren finak. Azkenik, urte askoan dantza munduan gogotsu ibili diranak. Euskal dantza tradizionalarentzat garairik onenak ez diran honetan, azken hauek dira dantza talde eta ohitura askoren sostengu. Eurek egindako lanari esker mantendu da gaurdaino daukagun eza-

gutza osoa. Badaukagu hauei guztiei zer eskertu! Aipatutako transmisioa ez eze, dantza taldeen arteko aspaldiko gatazka eta txarto-ulertuak transmititzen dabezanak be badagoz hauen artean. Tradizioaren izenean andrak plazatik kanpo mantentzeko gurutzadaren zenbat konplize baztarretan ondino... Badagoz lehenbailehen gaintitu beharreko kontuak, aspaldi gaintuta eduki beharko geunkezanak. Aurrera begiratu eta aspaldiko mamuak uxatu behar doguz. Zaharkituta geratu eta kalte baino egiten ez daben gatazkak alboratu, indarrak batu eta amaigabeko ziklo honi bukaera emon dagiogun. Bada garaia sagar ustelak otzaratik atara eta bide barri bati ekiteko.

Aritz Lasarguren Otzerinjauregi. Durango

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).


ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Andoni Iturbe | Foru Aldundiko Ondare Zerbitziburua | Zornotza, 1967

“*Katu-familiako bi animalia ageri dira argi; lehoiak direla uste dugu*”

Madeleine erdi aldiko grabatuak azaldu dira Lekeition, Bizkaian lehenengoz agertu diren motiboekin



> BERBAZ Aitziber Basauri
Duela 14.000 urte inguruko historiaurreko grabatuak aurkitu dituzte Armintxeko koban (Lekeitio). Madeleine erdi aldiko grabatuak dira, kaltetate handikoak, eta ikerketa proiektua zabalduko du Foru Aldundiak. Hala ere, teknologia berriak baliatuz, grabatu hauek eta Arte Paleolitoa duten Bizkaiko zortzi kobatako irudiak ikusteko aukera egongo da Bilboko Errekalde Areatoan, azaroaren 12tik urtarrilaren 17ra. Askondok (Mañaria) ere izango du bere espazioa.

Zenbateko garrantzia du Armintxe kobako aurkikuntzak? Bizkaian lehenengo aldiz agertu diren motibo bereziak azaldu dira Armintxen. Erabilitako teknika ere ez da berria, baina bai berezia: izan ere, grabatuak diren arren, lehenengo begi-kolpean, pintura edo margolanen aurrean gaudela ematen du. Panelaren konposaketa, motibo eta animalien neurriak ere oso bereziak dira. Metro eta metro eta erdi inguruko figurak dira, eta, orain arte, 10-20 zentimetrokoak ikusi ditu-

gu. Ikaragarria da aurrez aurre ikustea; gainera datorkizula dirudi. Kontserbazioari dagokionez, joan zen hilean egindako margoak dirudite.

Teknika aipatu duzu. Halakorik ez duzue ikusi orain arte? Ikusi dugu, bai. Baina beste garai bateko grabatuetan, zaharragoetan —Enkarterrian daude batzuk, adibidez, duela 20.000 urtekoak—. Orduan, normalean, askoz sakonagoa izaten zen zuloa. Kasu honetan, hainbeste zulotu gabe, horma urratu egin dute gehiago, harri batez. Beraz, ematen du margo baten aurrean gaudela. Marka horien zabalera finagoa ere bada. Irudi denak daude teknika horregaz eginda, eta benetan bereziak dira. Dena den, badiot, orain arte ikusitakoak beste garai batekoak dira, ez Madeleine erdi aldikoak.

Kobaren sarreratik 50 metro-ra dauden margolanek animalien konposizio oso garrantzitsua dute. Tamainagatik ala irudikatutako animalienengatik? Denagatik. Panel nagusian 25 irudi ageri dira: ezkerrean,

argi ikusten dira hainbat animalia; zaldiak batez ere. Eskuinalderantz joanda, berriz, halako nahaste-borrastea dirudiena ikusi daiteke; egiaz horrela ez dena. Artistak edo artistek oso ondo pentsatu zuten non grabatu animalia bakoitza: lehenengo begi-kolpean nahaskeria dirudien arren, astiro aztertuta oso ondo pentsatutako konposaketa da. Horre-

“*Ikaragarria da aurrez aurre ikustea; gainera datorkizula ematen du*”

“*Zeinu klabiforme batzuk ere azaldu dira; Frantziako Pirinioan aurkitu direnak*”

gatik diot horretan ere nahiko berria eta ordenatua dela.

Zer erakutsi gura du horrek? Gure ustez, lekuak baldintzatutako irudiak dira. Ganga antzerako bat da, eta artistaren edo artisten lana forma edo baldintza horietara moldatu da. Ez dugu uste kasualitatea denik. Artista baldintzatuta dago forma horregatik. Hala ere, aztertutako teoria bat da.

Zaldiak aipatu dituzu, baina, lehoia ere ageri da, ezta? Bai. Orain arte gure lurraldean ez dugu horrelakorik aurkitu. Katuaren familiako animalia bi oso argi ageri dira, eta uste dugu lehoiak direla. Oso ondo grabatua dago bat, detaile guztiagaz; oso argi ikusten da. Bigarren bat ere nahiko ondo ikusi daiteke. Behekaldean ageri den hirugarren bat, aldiz, katuaren familiakoa den duda dago. Antza du, baina, sakonago aztertu beharko litzateke.

Kantauri isurialdeko leize batean lehenengoz azaldu da halakorik. Esanahi berezia du? Oso arraroa da. Sorpresa izan

da. Bisonteak, zaldiak... ikusi ditugu leizerik gehienetan. Aztertutako egin beharko da zergatik agertu diren hemen, eta ez beste toki batzuetan. Katuaren familiakoak direla argi dago, eta, ziurrenik, lehoi batzuen aurrean gaudela. Ikerketa bidea zabaldu da hor. Orain arte inguru honetan aurkitu ez diren zeinu klabiforme batzuk ere azaldu dira; Frantziako Pirinioan aurkitu direnak: baliteke kultura-kutxatzea deritzona ematea. Ikerlari eta aditu batzuen lan-ildo hori indartu dezake. Baina, datozen urteetan sakondu beharko da hori ere.

Ikerketak jarraituko du. Gehiago dagoela uste duzue?

Baiezkoan gaudela. Historiaurreko katedraduna eta Arte Paleolitoan aditua den Cesar Gonzalezek ere aipatu du ezagututako Arte Paleolitoa kopuruz ez dela handia, baina logikak dio produkzioa askoz handiagoa izan beharko litzatekeela. Halako irudiak horma batera eraman aurretik, nonbait probak egingo zituzten. Gehiago egon beharko litzatekeela uste dugu. Orain arteko emaitzak onak dira, baina ziurrenik gehiago dago. Ikusi behar topatzeko gai garen.

Gizakien arrastoak ere aurkitu daitezkeela uste duzue?

Kobara sartzeko zail dago, eta uste dugu jenderik ez dela sartu azken horma horietaraino. Teoria bat da. Hala ere, arkeologoek ustez, zoru hori ukitu gabe badago, baliteke elementu edo materialen batzuk agertzea, grabatuak hobeto ulertzen lagunduko luketenak. Aurreneko prospekzio bat egin da, eta datozen urteetan sakon aztertzea da asmoa.

2011n eta 2013an Mañariko Askondon aurkitutako margolanekin ez dute zerikusirik. Ez. Kronologikoki zaharragoak dira, duela 25.000 urte ingurukoak. Pinturak dira, ez grabatuak, eta egikera aldetik gutxiago landutakoak dira. Estilo desberdinak ere badira.

Euskal Herriko Paleolito garaiko aztarnategi garrantzitsuenetarikoa bat da Askondo. Nola daude ikerketa hauek? Ikerketa lanok ez dira inoiz bukatzen, eta horretan sakontzen ari gara. Askondon azterketa proiektu bat egin zen, eta lehen ondorioak argitaratuta daude, baina lanean jarraitzen dute.



Durangoko Arte eta Historia Museoan egin zuten, eguaztenean, 51. Durangoko Azoka aurkezteko prentsaurrekua. Txelu Angoitia

> AURKEZPENA Itsaso Esteban Durangoko Azokaren 51. edizio-rako 36 egun falta zirela, Durangoko Arte eta Historia Museoan aurkeztu zuten, eguaztenean, Azoka iragartzeko Christine Etxebertz artistak egin duen kartela. Abenduaren 2tik 6ra, *Bizitzekoa DA!* leloagaz burutuko den Azokara etortzeko gonbita egin zuten antolatzaile eta babesleek. “Adin eta mota guztietako kulturzaleak” gonbidatu dituzte, izan ere, “Azoka gero eta erakusleihen osoagoa bilakatzea” da 51. edizioa antolatzen dabilzanen helburua. Azokaren antolakuntzan dabilzanek “sabeleko tximeletak dantzan hasiak” dituztela esan zuen Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek.

Nerea Mujikak, Aitziber Iri-goras Durangoko alkateak, Ana

“Euskal hiztunak ez direnei ere etortzeko eta Azoka bizitzeko eskatu gura diegu”

Abenduaren 2tik 6ra izango da 51. Durangoko Azoka; asteon aurkeztu dute Arte eta Historia Museoan

Castro Bizkaiko Aldundiko Euskara zuzendariak eta Cristina Uriarte Kultura sailburuak hartu zuten berba eguazteneko aurkezpenean. Iazko 50. urteurren borobilaren arrakastaren ondoren, aurtengo edizioa Durangoko Azokaren etorkizunera begira erronka berezia dela azpimarratu zuten ordezkari guztiek. Durangoko Azokaren bigarren mende erdiaren hasiera izango delako, 51. hau ere mugarri izango dela azpimarratu zuten agerraldian.

670.000 euroko aurrekontuagaz antolatu du Gerediaga Elkartek (iaz baino %10 gutxiago) 51. Durangoko Azoka. Nerea Mujikak azpimarratu duenez, “aurrekontu handiagoagaz gauza asko egin genitzakeen arren, daukaguna gure eredu mantentzeko adina da”, eta pozik daude. Ildo horretatik, Azokaren 51. edizio honetan transmititu gura duten ideia azaldu zuen Mujikak: “Gazteei, nagusiei, haurrei, euskaldun berriei, zaharrei, eta euskal hiztunak ez

direnei ere etortzeko eta Azoka bizitzeko eskatu gura diegu”.

Iparaldeari leku berezia

Aurten hamar urte betetzen dira Gerediagak eta Euskal Kultur Erakundeak hitzarmena sinatu zutela, eta urteurren horren harira, presentzia nabarmena izango du Ipar Euskal Herriak 51. Durangoko Azokan: “Ipar Euskal Herriko eskaintza inoiz baino zabalagoa izango da: 30 ekitalditik gora izango ditugu, teknologiar, zinemari, zabal-

kundeari, literaturari, musikari zein arte eszenikoei lotuta”, Mujikaren berbetan.

Azken urteetan bezala, ikasleei zuzenduriko egunagaz hasiko da Durangoko Azoka, baina ohikoa baino lehenago, aurten: abenduaren 2an. Antolatzaileek azaldu dutenez, Ikasleen Eguna laneguna izateak eragin du Azokaren data aurreratzea. Inoizko izen-emate kopururik handiena izan dute, aurten: 6.000 ikaslek parte hartuko dute Ikasle Eguneko ekintzetan.

Durangoko Museoan egongo dira ikusgai Etxebertz kartelgilearen margolanak

Azaroaren 17an inauguratuko dute Lapurdiko artistaren erakusketa

Lehenengoz, Ipar Euskal Herriko artista batek egindako kartelak iragarriko du, aurten, Durangoko Azoka: Christine Etxebertz (1953, Baiona) margolariaren kartel koloretsuak, hain zuzen ere. Kanbon bizi den artistak azaldu duenez, “Durangoko berotasuna eta pasioa” islatu gura izan ditu Azokarako egin duen kartelean. Izan ere, dioenez, horixe baita berarentzat Azoka: “Dinamismoa, bizitasuna eta beroa”.

Gerediaga Elkartek 51. Durangoko Azoka iragartzeko

eskaini zuen agerraldian parte hartu zuen Etxebertzek, eta azpimarratu zuen “ohore handia” dela berarentzat Azokaren Ipar Euskal Herriko lehenengo kartel egilea izatea.

Abstrakturantz

Txelu Angoitia Gerediaga Elkarteko kide eta argazkilariak egin zuen Azokako kartelaren egilearen aurkezpenean, eguazteneko prentsaurrekoan. Angoitia azaldu zuenez, bere ibilbidearen hasieran margogintza figuratiboa landu zuen Etxe-

bertzek, eta arte abstraktua landu izan du batez ere, azken urteotan. Hainbat sari jaso ditu artista lapurtarrak; Europako Arte Akademiaren saria edo Toulouse-Hispania saloiko domina, esaterako.

Azaroaren 17tik urtarrilerarte, Durangoko Museoan egongo da ikusgai Christine Etxebertz lanaren erakusketa. Durangoko Azokako kartela egin duen artistaren ibilbideko hainbat lan ikusteko aukera izango dute bisitariek, beraz, Azokako bost egunetan ere.



“Pasioa eta berotasuna” islatu gura izan ditu artistak kartelean. T.Angoitia

'Abarkas'-ek eta Ugartetxeak ere kantatuko dute finalaurrekoetan

Durangaldeko bertsolariak garaile Bizkaiko Txapelketako 3 kanporaketetan

> BERTSOLARITZA Itsaso Esteban 487 puntugaz, domekan Igorren jokatu zuten Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren udazkeneko hirugarren kanporaketa irabazi zuen Beñat Ugartetxea malla-

bitarrak. Aurreko egunean, urriaren 22an, Eneko Abasolo *Abarkas* Iurretako bertsolariak eskuratu zuen finalaurrekoetarako pasea, Sestaon jokatu zuten kanporaketan.

Durangaldeko hiru bertsolari irabazi dituzte orain arte jokaturiko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hiru kanporaketak: Miren Amuriza berriztarrak lehenengoa (531 puntugaz),

Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak bigarrena (447 puntugaz), eta Ugartetxeak hirugarrena (487gaz). Abenduaren 3an Larrazun jokatu duten finalaurrekoan kantatuko du, beraz, Amurizak; azaroaren 19an Marikina-Xemeingo finalaurrekoan *Abarkas*-ek; eta azaroaren 27an Basaurin egingo duten saioan, Ugartetxeak.

Asteburu honetan, urriaren 29an, jokatu dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren laugarren kanporaketa, Leioa Kultur Auditorium-ean, eta Durangaldeko beste bertsolari batek kantatuko du bertan. Txaber Altube abadiñarra dago seikotean Ander Elortegi, Ibon Ajuriagojeaskoa, Joseba Artza, Joseba Barandiaran eta Mikel Goitiarenagaz batera.

ANBOTOK bi sarrera bikoitz zozkatuko ditu azaroaren 5eko Zaldibarko saiorako: idatzi 688 635 041 telefono zenbakira azaroaren 3a baino lehen, eta parte hartu zozketan!

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA 'TXOTXE'

Irakaslea



Ilarako lehena

Unai Iturriagak eta Alex Sanvik sortutako *Udaberririk Ankerrena* komikiaren pasarte bat antzeztuko dugu Agurrik Gabeak ekitaldian, urriaren 30ean, Plateruenean. Arte eszenikoen baliabideak aprobeztatuz, memoria historikoaren gaiagaz gatz Karrikakook berriro. Komiki bat da oraingon abiapuntua, eta horrek gaia beste era batean lantzeko aukera eman digu. Gure lehenengo saiakera *Martxoak 31* izan zen. Haren eskutik, *Lurra Astinduz*, *Izarrak Marrazten* eta *Udaberririk Ankerrena*. "Tontamentian", bederatzi urte pasa dira. Instituzioen inplikazioa, justizia, egia eta erreparazioa eskatzen genuen orduan. Ez dira guk nahi genuen beste urrats eman norabide horretan, baina aldaketak izan dira, zorionez. Urruti joan barik, datorren hilean, Iruñea erdi-erdian dagoen mausoleotik atera eta familiari emango diote Durangaldea bonbaz josi zuen Mola jeneralaren gorpua. Bazen ordua.

Elkarteek, idazleek, komikigileek, zientzia elkarteek, bertsolariak, historiagileak zein antzerki taldeek, ikaragarritzko ahalegina egin dute memoria berreskuratu eta historiako hainbat pasarte ilun argira ekartzeko. Guztietatik bat azpimarratu nahi nuke: Donostian, ikasle nintzela ezagutu nuen. Gipuzkoa plazan dagoen liburutegian topo egiten genuen arratsaldero. Han egoten zen bera, lehenengoa, ilaran, ateak noiz zabalduko itxaroten. Gehienok alde egiten genuenean, han geratzen zen bera.

Urteetara, ilaran lehenengo zegoen ikaslearen izena hedabideetan ikusi nuen: Pako Etxeberrria zen. Ilusio itzela egin zidan berarekin ilara konpartitu izanak.

Azaroaren 4an eta 5ean egingo dute 24 Ordu Digitalean lehiaketa

Elorrioko Arriolak antolatzen duen film laburren lehiaketaren hamaikagarren edizioa da aurtengoa

> ZINEMA Itsaso Esteban Azaroaren 4an eta 5ean egingo dute Elorrioko 24 Ordu Digitalean lehiaketa. Ikus-entzunezkoen lehiaketa horren hamaikagarren edizioa izango da aurtengoa, eta aurreko urteetan bezala, egun batean eta antolatzaileek emandako gaia eta baldintzak beteta, film labur bat osatzea izango da erronka. Honako helbide honetara idatzita eman daiteke izena lehiaketan: 24ordu@arriolaka.com.

Hiru sari egongo dira jokoan: 700 eurokoa da sari nagusia, eta 500 euroko sari bana jasoko dute finalista hautatzen dituztenek.

Azaroaren 4an, 17:00etan, Arriolan elkartuko dira parte-hartzaileak, eta beraien lanean islatu beharreko gaia emango diete antolatzaileek. Gehienez ere 24 ordu edukiko dituzte zinegileek gidoia eta lokalizazioak pentsatu, grabazioa burutu eta lanak editatzeko. Ohi bezala, lehiaketara aurkezturiko lan guztiak eskainiko dituzte azaroaren 5ean Arriolan egingo duten ekitaldian, eta sariak banatu, ondoren.

Iaz Gurutze and Ganbara taldeak jaso zuen lehiaketako sari nagusia, *Josu Inri. Beauty Python* film laburragatik.

XXII. Txistu kontzertua eskainiko dute, bihar

90 txistulari eta beste hainbat artista arituko dira Silboberri Elkartek antolaturiko kontzertuan

> MUSIKA Itsaso Esteban Silboberri Elkartek Durangoko San Fausto jaien bueltan antolatzen duen Txistu Kontzertuaren XXII. edizioa egingo dute, bihar, 20:00etatik aurrera, Landakogunean. Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako 90 txistulari parte hartuko dute emanaldian, eta beste hainbat diziplinako artistak ere gonbidatu dituzte emanaldian parte hartzera: Portu Brass taldea, Barakaldoko perkusionistak, Bizkaiko Ingeniarien Abesbatza, Debako dantza eta antzerki taldeak, edo Durangoko L'Atelier dantza taldekoak arituko dira, besteak beste, Jabier Ituarteren zuzendaritzapean.

Silboberri egin ohi duen bezala, tradizioaren eta modernitatearen erakusgarri izango da biharko kontzertua ere: txisturako erreperatorioko pieza klasikoak eta moldaketa modernoak eskainiko dituzte. Izan ere, horixe da Silboberri Elkarteen helburu nagusietako bat: entzulegoari txistuaren moldakortasuna erakustea.

Txisturako erreperatorioko pieza klasikoak eta moldaketa modernoak izango dira entzungai

Malmö

Khea Ziater

Urriaren 29an, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.eus

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA

IGANDEETAN MENU BEREZIAK

URRIAK 28

21:00etan

IZARO

KONTZERTUA

URRIAK 30

19:00etan

DURANGO 1936

OMENALDIA

AZAROAK 4

22:30etan

ETXE

KONTZERTUA

MALLABIKO URRIKO JAIAK

THE BON SCOTT BAND
VENDETTA
+ DJ BULL

URRIAK 28, barikua
16:00 Merendola eta tailerrak umeentzat eskolan.
Antolatzailea: Guraso Elkarte

17:00 Buruhandiak.
Antolatzailea: Guraso Elkarte

18:00 Txupinazoa.

19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala.

20:00 Oilasko pintxoak plazan.
Tiketak: 1,50€

21:30 Akerbeltz taldearekin erromeria plazan.

URRIAK 29, zapatua
11:00 Dumatlo txikia herrian.
Antolatzailea: Guraso elkarte

12:00 Mallabiko I. Arda Ferixie Kontzejuzarrean.
Sarrera: 5€
Antolatzailea: Ardosaltsan.

16:00 Litxarrerria tailerra umeentzat frontoian.

22:30 Rock kontzertua parkean:
• THE BON SCOTT BAND
• VENDETTA
• DJ BULL

URRIAK 30, domeka
12:00 Gaztetxo arteko pilota partiduak frontoian.
Antolatzailea: Mallabia I pilota eskola.

17:00 “Tomasen abenturak” pailazoak frontoian.

17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean.

18:30 Txokolatada plazan.

URRIAK 31, astelehena
17:30 Nesken gomazko “MPB” paleta zirkuituko finala eta eskolarteko nesken partiduak frontoian.

AUTOBUSA // DB44G (MALLABIA) - ERMUA - ONDARROA

MALLABIA	ERMUA	EIBAR	ELGOIBAR	ALZOLA	MENDARO	DEBA	MUTRIKU	ONDARROA
00:25	00:30	00:35	00:40	00:45	00:50	00:55	01:05	01:15
02:25	02:30	02:35	02:40	02:45	02:50	02:55	3:05/2:05	3:15/2:15
3:25/2:25	3:30/2:30	3:35/2:35	3:40/2:40	3:45/2:45	3:50/2:50	3:55/2:55	03:05	03:15
04:25	04:30	04:35	04:40	04:45	04:50	04:55	05:05	05:15
05:55	06:00	06:05	06:10	06:15	06:20	06:25	06:35	06:45
06:30	06:35	06:40	06:45	-	-	-	-	-
ONDARROA	MUTRIKU	DEBA	MENDARO	ALZOLA	ELGOIBAR	EIBAR	ERMUA	MALLABIA
20:10	20:15	20:30	20:45	20:48	20:55	21:10	21:20	21:25
21:20	21:25	21:40	22:05	22:08	22:15	22:30	22:40	22:45
22:10	22:15	22:20	22:25	22:28	22:35	22:45	22:55	23:00
23:10	23:15	23:20	23:25	23:28	23:35	23:45	23:55	00:00
23:45	23:55	00:00	00:05	00:10	00:15	00:20	00:25	00:30
01:45	01:50	01:55	02:00	02:05	02:10	02:15	02:25	02:35
02:45	02:50	02:55	3:00/2:00	3:05/2:05	3:10/2:10	3:15/2:15	3:25/2:25	3:35/2:35
03:45	03:50	03:55	04:00	04:05	04:10	04:15	04:25	04:35
05:45	05:50	05:55	06:00	06:05	06:10	06:15	06:25	06:35

ANTOLATZAILEAK

Mallabiko Udala
Jai Batzordea



‘Hitzari gorazarre’ egiteko zazpi hitzordu, azaroan, Durangon

Hainbat eragilek elkarlanean eratu dute literatura ardatz duen azaroko zikloa

> LITERATURA I. Esteban
400 urte dira William Shakespeare eta Miguel de Cervantes hil zirela, 150 urte Evaristo Bustintza *Kirikiño* mañariarra jaio zela, 80 Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* hil zela, eta 110 Felipe Arrese Beitia otxandiarra hil zela. Poeta, idazle eta bertsolari horiek gogoan hartuz, urteurren eta ospakizun urtea da han eta hemen 2016, eta autore horien literaturaren bueltan elkartzeko proposamena egin dute Durangon ere. *Hitzari*

gorazarre zikloa prestatu dute herriko hainbat eragilek, azarorako. Shakespeare, Cervantes, *Kirikiño*, *Txirrita* edota Arrese Beitia hitzak oinarri hartuta, doako zazpi hitzordu izango dira.

Auzolanean antolatuta, adin guztientzako moduko ekintzak jasotzen ditu *Hitzari gorazarre* zikloak, datorren hilean Durangoko hainbat kale eta aretotan izango direnak. Azaroaren 4an izango da lehenengo zita: helduentzako saioa eskainiko du

Joxemari Carrere ipuin kontalariak, Udal Bibliotekan.

Koldo Izagirre idazlearen berbaldia, bertso-trama, literatura instalazioa, ibilbide literarioa, irakurle klubaren saio berezia eta antzerkia izango dira zikloaren gainerako eskaintzak.

Azaroaren 4an izango da lehenengo hitzordua: Joxemari Carrereren ipuin kontalaritza saioa

Durangoko Karrika antzerki taldearen emanaldi bategaz amaituko da zikloa, azaroaren 18an: *Deshakeaspearezioa* obra prestatu dute Durangaldeko antzerkigileek, idazle ingelesaren hainbat testu oinarri hartuta.

Izen-ematea zabalik

Izena eman beharra dago Gerediaga elkarteak antolatutako *Durangaldeko idazleak Durangon zehar* izeneko ibilbidean eta Udal Bibliotekan burutuko duten literatura instalazioan parte hartzeko. Ibilaldirako, gerediaga@gerediaga.eus helbidera idatzi behar da, eta Miriam Peña eta Peru Magdalena du-



Udal Bibliotekan aurkeztu zuten zikloa, astelehenean.

rangarrek bederatzi eta hamabi urte arteko umeentzat burutuko duten instalazio literarioan parte hartzeko, Bibliotekan eman daiteke izena.

Udal Bibliotekak, San Agustín kulturguneak, Karrika antzerki taldeak, Gerediaga eta Berbaro elkarteek, Durangaldeko bertso eskolak eta Plate-

ruenak antolatu dute zikloa, eta Udalaren laguntza jaso dute.

Izena eman beharra dago ibilbide literarioan eta instalazio literarioan parte hartu ahal izateko

> ANTZERKIA A. Esteban
2015-2016 ikasturteko zortzigarren antzerki tailerrari amaiera emateko, ikastaroan zehar prestatzen egon diren antzezlanak aurkeztuko dute Banarte antzerki taldekoek, urriaren 29an, Errota kultur etxean. Aitziber Bilbao zuzendu du *Danny y Roberta* antzezlanak, eta Maria Otxandiano eta Mikel Uriguena ibiliko dira aktore lanetan.

Aitziber Bilbao aktore elorriarrak emandako tailerra iazko urrian hasi zen, eta Durango, Abadiño, Elorrio eta Eibarreko ikasleek parte hartu dute. Azkenean, bi izan dira tailer osoa egin eta amaierako antzezlanak egingo dutenak. Urtebete lanean ibili ondoren, *Danny y Roberta* antzeztuko dute, lehen aldiz, larunbat honetan, Errota kultur etxean, 20:00etan.

Antzezlan hau John Patrick Shanley-en *Danny and the Deep Blue Sea*-ren moldaketa da. Drama honek bi pertsona bakartiren istorioa kontatzen du. Taberna batean topo egiten duten pertsonaiak dira, eta beraien

‘Danny y Roberta’ antzezlanak aurkeztuko du Banarte taldeak

Errota kultur etxean estreinatuko dute antzerki tailerrean prestatutako lana



Maria Otxandiano eta Mikel Uriguena 'Danny y Roberta' antzeztuko dute. Patxi Granada

miserietatik irteten lagunduko dien erlazioa bilatzen dute.

Errota kultur etxean izango da estreinaldia, baina antolatzailak, gutxienez, beste bi toki gehiagotan antzeztea gura

dute: “Hiru publiko ezberdinen aurrean jarri gura ditugu, tentsazio ezberdinak esperimentatzeko”.

2007an sortu zen Banarte antzerki taldeak formazioa izan du

ardatz, eta “oholtza gainera igozteko gura baina ezin zutenentzat aukera bat izatea gura genuen”, adierazi du Banarte antzerki tailerraren sortzaileetakoa den Rafa Herce aktoreak.

Maria Otxandiano eta Mikel Uriguena antzeztuko dute bikote protagonista. Jendearen aurrean antzeztu duten lehenengo aldia izango da bientzat. “Oso urduri daude. Orain arte tailerrean egin dutena gauza bat da, eta jendearen aurrean egitea beste bat. Karteletan beraien aurpegiak ikustean oso urduri jartzen dira”, azaldu du Herce.

Herce dioenez, “nahiz eta zure helburua aktore bihurtzea ez izan, antzerkiak zeure burua ezagutu eta neurtzen laguntzen dizu. Jendeagaz erlazionatu, eta publiko baten aurrean berba egiteko beldurra kentzen laguntzen dizu”.

Banarte taldekoak bederatzi garren antzerki tailerra prestatzen ari dira. Urrik hasi eta ekainera arte, laurogeita lau orduko ikastaroa izango da. Tailer osoaren prezioa 400 eurokoa izango da, eta gutxienez sei ikasleko taldea eta gehienez hamabikoa sortu gura dute. Izena emateko, banarte@gmail.com helbide elektronikoan kontaktuan jarri behar da.

Joseba Valladares | Durango, 1993 | Iurretako futbol taldeko zentrala

“Beti ahalik eta ondoen egoten saiatzen naiz, entrenatutako moduan jokatzeko baita zelaian”

Joseba Valladares sei partidutan gol bi bakarrik jaso dituen Iurretako taldeko zentrala da

> KIROLA Joseba Derteano Iurretako goiko postuetan dabil Ohorezko Mailan, hein handi batean defentsako lan eraginkorrari esker. Sei partidutan gol bi jaso dituzte. Valladares taldeko zentrala da. Taldearen gaurkotetasunaz, Jon Gurutz Vazquez entrenatzailearen itzulera, Athleticen bizi izan zuen esperientzia... solastu gara durangar gazteagaz.

Sei partidutan gol bi baino ez dituzue jaso. Atea ondo zainduta daukazue.

Eta jarrai dezala boladak! Oraingo nahiko indartsu gaudela defentsan, bai. Talde lanaren meritua da.

Etxeko datuak azpimarragarriak dira. Hirutik hiru garaipe, zortzi gol sartu eta bat bera ere jaso barik. Horrela da. Ea domeka honetan martxa horri eusten diogun Retuertoren aurka!

Etxetik kanpora, aldiz, kosta egiten zaizue. Birritan 1-0 galduta itzuli zarete. Aurkariak gol bakarria nahikoa izan dute puntuak eurenganatzeko. Partidu konplikatuagoak dira. Batzuetan, zelaia neurriak ez dira guri gehien gustatzen zaizkigunak, eta kosta egiten zaigu egokitzea. Etxean, ordea, geuk izaten dugu baloiaren jabetza normalean, eta aurkariak baloiaren atzetik ibiltzen direnez, partidua aurrera egin ahala nekea sumatzen dute. Bigarren zatietan gol gehiago sartzen gabilta.

Bederatzi goletik zortzi etxean etorri dira. Arrazoi batetatik edo besteetatik, gol falta duzue kanpoan.

Bai, gola sartzen digutenean kosta egiten zaigu egoerari buelta ematea. Martxa bat gehitzen dugu, baina jokaldia amaitu ezinik ibili izan gara orain arte. Zorionez, joan zen asteburuan apurtu egin ge-

nuen joera hori, Urdulizen 0-1 irabazita.

Odolkiak ordainetan. Gol bat sartu eta hiru puntuak etxera. Eta begira zer ondo! Gainera, oraingoan geuk izan gara gola azken txanpan sartu dugunak. 84. minutuan heldu zen, penalti bidez. Denak balio du.

Taldeak badu helburu zehatzik aurten, ala entrenatzaile denen moduan partiduz partidukoa aipatuko didazu?

Simeoneren antzera, ezta? (barreak) Begira, baloia behetik mugitzeagatik eta modu horretara jokoa sortzen saiatzeagatik bereizi izan garen taldea gara, eta hori ez da ohikoa: taldeen %90ek ez du hori planteatu ere egiten Ohorezko Mailan. Beraz, denboraldi batzuetan entzun izan da igoeraren kontua. Baina hori joan da. Jokalari bakoitzak taldean jarraitzea edo aurten beste bide bat hartzea erabaki ostean, denok Jon Gurutzegaz [entrenatzailea] batera, partidurik partidu joan gura genuela erabaki genuen. Oraingo, ondo irteten ari da.

Iurretakoren aurtengo nobedadeetako bat Jon Gurutz Vazquezen itzulera da, Iurretako eta Gertasporten arteko polemika haren ostean. Zelaia izan da itzulera?

Ona. Urtarrilean kargutik kendu zutenean, momentu konbultsoak izan ziren. Orain, zuzendaritza batzorde berriagaz, eta une berri batean, ba, ilusioz gaude, eta batera goaz denok. Jon Gurutzek guk denok gura duguna transmititzen digu, bai jokatzeko moduari dagokionez, bai denboraldiari aurre egiteko moduari dagokionez.

Taldeak zelan bizi izan zuen Jon Gurutz kargutik kentzea? Eragin zizuen, ala apur bat kanpotik bizi izan zenuten?

Taldeko entrenatzailea zen, eta ezin daiteke kanpotik bizi. Eragiten du. Gaia komentatzen ge-



nuen, baina kirolez kanpoko gaiak zirenez, gure lanean zentratzen saiatzen ginen, orduko entrenatzaileagaz zein zuzendaritza batzordeagaz.

Taldean giro ona dago?

Bai, eta hori beharrezkoa da. Bazkariak, bromak, entrenamendu saioen ostean pintxoaren bat edo beste... Horrek guztiak hartuemanak sendotzen eta taldea indartzen laguntzen du, eta itzelezko garrantzia du. Orain momentu gozoan gaude.

Hasierako hamaikakoan finkoa zara. Zelan zaude arlo pertsonalean?

Entrenamenduz entrenamendu noa. Kontatuko balizute nire taldekideek zelan ikusten nauten zelairatzen naizen bakoitzean! Zelaira erabat kontzentratuta irteten saiatzen

“Gertutik bizi izan dut Athleticen esperientzia; horrek lorratz ahaztezina uzten du”

naiz, ia inor ez agurtzeraino. Futbola pasioa da. Athleticen esperientzia gertutik bizi izan dut, eta horrek lorratz ahaztezina uzten du.

Konstantzia eta azkartasuna dira zure bertuterik onenak?

Azkartasuna ez dakit, konstantzia bai. Beti ahalik eta ondoen egoten saiatzen naiz. Entrenatutako moduan jokatzeko baita zelaian. Beste dohain bat aipatzekotan, azkartasuna barik baloiaren irteera aipatuko nuke beharbada.

Gazteagotan lau urte eman zenituen Athleticen. Zein da esperientzia hark utzi zizun lorratza?

Erantzukizuna, konpromisoa, alderdi teknikoa zein taktikoa... denetarik apur bat.

Athleticeko horien zer oroitzen duzu?

Hasierako hirurena oso ona. Dena jokatu nuen. Gogoan dut, esaterako, estatuko Nike Txapelketa kadeteetan. Valentzia izan zen, eta hirugarren amaitu genuen, Bartzelonaren eta Real Madrilen atzetik. Lorpen bat izan zen. Euskadiko selekzioagaz Hego Korean ere ego-na naiz. Finalerdietan etxeko

selekzioaren kontra jokatu genuen, epailea ere hangoa zen eta... Ostu egin ziguten partidua, aurkako penaltia adierazita. Partiduaren amaieran epaileak barkamena eskatu zuen.

Jokalari gazteak Athleticera batzean, ilusioz gainezka egoten dira, baina ez dute futbolaren krudeltasuna eza-

gutzen. Hau da, gutxi batzuk heltzen direla gora. Gogorra egin zitzaizun Athletic uztea? Bai, jakina gogorra egiten dela. Horrelako uneetan gurasoen figura oso inportantea da. Nik banekien azken urtean ez nuela ezer jokatu, ez niola taldeari ezer inportanterik eskaini nahiz eta egunero horretan saiatu entrenamentuetan eta, hala ere, gurasoek defendatu egin ninduten arduradunen aurrean. Hori itzela da.

Bost urte daramatzazu Iurretak. Etxean sentitzen zara?

Bai, erabat. Urterik gehien eman dudana taldea da.

Durangar bat Iurretan etxean sentitzen dela esaten...

(Barreak). Auzokoak gara, azken batean. Gainera, Durangon bizi naiz, baina Iurretaz muga-mugan.

> **KORRIKA** J. Derteano

Durangoko Gau Krosak bigarren aldia egingo du zapatuan. Gauez, argiztapen bereziak lagunduta, Durangoko kalerik esanguratsuenak zeharkatuko dituzte. Hasieratik, lasterketa herrikoia antolatzea izan zuten helburu antolatzaileek, eta aurtengo asmo horretan sakonduko dute.

Esaterako, ez dute saririk banatuko. Horren ordez, askotariko zozketak egingo dituzte partaideen artean: afariak eta bazkariak Durangoko tabernetan, kirol materiala, kirol arropa... Horrez gainera, parte-hartzaile bakoitzak pintxo poterako txartelak edota bi baten trukerako txartelak jasoko ditu Durangoko tabernarien ekarpenei esker.

Lasterketaren izaera herrikoia areagotzeko, beste neurri bat hartuko dute: Santa Anan DJ bat egongo da musika jarzen. Musikagaz eta argiztapen bereziagaz, jai-giroa emango diote ekimenari.

Ibilbideak aldaketa batzuk ditu aurtengoan. Irteera eta helmuga Santa Anan izango dira, iazko moduan. Baina noranzkoa aldatu dute. Goienkaletik igo beharrean, jaitsi egingo dira aurtengoan. Kalebarria eta Komentukaletik ere ibiliko dira, Alde Zaharrean.

Durangoko Gau Krosaren izaera herrikoian sakonduko dute aurtengoan

Korrika egitea gustuko duten denentzako topagune bihurtu gura du



Iaz, lehen aldian, ia 300 lagunek parte hartu zuten. Gorka Larrinaga

Uribarri kaletik Montevideora jaitsiko dira. Ezkurdi, San Agustinalde, Josemiel Barandiaran eta Zeharkaletik igaro, eta Artekaletik igoko dira Santa Anara. Horrela, Artekaletik igota, parte-hartzaileek parez pare ikusiko dute Santa Anako arkuan dagoen helmuga, eta azken metroak "erakargarriagoak" izango dira, proba antolatuko duen

Durangaldeko Runningeko Dabid Garciaren esanetan. 2.2 km-ko zirkuituari itzuli bi emango dizkiote. Iaz baino zirkuitu luzeagoa diseinatuta, hiru itzuli beharrean, bi emango dituzte (4.5 km). Horrela, aurrenekoek gainerakoei itzuli bat kentzea gaitzagoa izango da.

Lasterketa 16 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Adin hori

baino gazteagoentzat beste lasterketa batzuk antolatuko dituzte, 18:30etik aurrera. Horientzat doakoa da izen-ematea.

Durangoko Gau Kroserako izen-ematea www.kirolprobak.com eta www.durangaldearunning.com webguneetan egin daiteke. Baita Arkupe tabernan ere. 10 euro da aurretik eginez gero, eta 18 euro egunean bertan.

ADITUAREN TXOKOA

ENERITZ ITURRIAGA

Elkar Kirolak emakumeen taldeko zuzendaria



Oinarria galtzen

Joan zen asteburuan, nire herrian, Abadiñon, urteko lehenengo ziklo-kros lasterketa jokatu zen. 09:00etan hasi eta 13:00ak arte oso ikuskizun politagaz eta bikainagaz gozatu genuen, guztira 165 mutil eta neskek parte hartu zuten eta.

Nahiz eta lehenengo orduak euritsuak izan, orduak pasatu ahala eguzkia ere irten zen, eta horrek jende gehiago animatu zuen bertara joateko. Herriarentzat ere interesgarria izaten da, bai taberna, hotel, eta inguruko zerbitzu guztientzat. Beraz, beti animatuko nituzke herriak kirol proba bat egitera, bai ekonomikoki eta bai sozialki, herria handitzen dutelako.

Datu batekin gelditzen naiz. 165 txirrindulari horietatik, kadeteetan 58 mutiko eta 9 neskato, eta juniorretan 35 mutil eta 3 neska zeuden. Asko direla eman arren, nire ustez oso datu kezagarriak dira, oinarria, harrobia, moteltzen ari dela erakusten duelako. Oso zenbaki eskasak dira. Datu horiek eta beste batzuk kontuan hartuta, dei bat egin nahi diet erakunde, txirrindularitza talde, eskola eta klubei, kezka eta arazo hau bideratu dezaten. Ze, urteak pasatu ahala, zenbakiak gero eta txarragoak dira. Guk nesken taldea daukagu, eta kostata, baina, oinarriarekin lan egin nahi izaten dugu (garaipenen ginetik) eurak bairira... hurrengo txapeladunak!

Izan ere, Valverde, Contador eta Purito joaten direnean, zer? Lan gogorra dugu aurretik, baina kirola maite dugunok arazo honen aurrean lanik egiten ez badugu, ez dugu etorkizunik edukiko. Eskerrik asko.

Kilometro bertikalen Kopa irabazi du Azkorbebeitiak

Araia-Aratzeko proban onena izan zen abadiñarra

> **KORRIKA** J.G. / J.D.

Oihana Azkorbebeitia abadiñarra Araia-Aratzeko kilometro bertikala irabazi zuen joan zen asteburuan (45:57). Gainera, proba horretan batutako puntuekin, Euskadiko kilometro bertikalen Kopa irabazi du, lehenengoz bere ibilbidean.

Lasterketagaz gustura geratu zen Abadiñoko korrikalaria: "Oso gustura nago gaurko garaipenagaz. Bezperan lo gutxi egin arren, eta ibilbidea ezagu-

tu ez arren, nire onena eman dut eta gozatu egin dut igoera osoan zehar".

Azkorbebeitiak ondo baino hobeto ezagutzen duen Anbotoko kilometro bertikalak zerikusi handia izan du kopako garaipena eskuratzeko. "Anbotoko kilometro bertikalean ere oso sentazio onak izan nituen, eta orduko bigarren postuari eta gaurko garaipenari esker lortu ahal izan du Euskadiko bertikalen kopa irabaztea".



Oihana Azkorbebeitia behean, seme biek eta gainerako sarituekin.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

m o m o t x o
t a b e r n a
Plateruen plaza, 12 DURANGO - Tel.: 946 811 006



JATETXE GIDA

ÑAM!



OLAJAUREGI JATETXEA

Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.
www.olajauregi-jatetxea.com

ÑAM!



KANBIO JATETXEA

San Migel Dueda auzoa
AMOREBIETA-ETXANO

Tel.: 946 730 033

Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO
Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
www.plateruena.eus

ÑAM!

MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



KOBIKA JATETXEA

San Ignazio, 8 DURANGO
Tel.: 946 810 003

Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Asto Trail mendi lasterketa berria antolatu du Garaiko Triatloi Taldeak, azaroaren 6rako

Probak 28 kilometro izango ditu; egun bererako, 18 kilometroko mendi martxa ere antolatu dute



Iazko mendi martxako parte-hartzaileak, Ametsorben, sokekin lagunduta. Ibai Bengoa

> KORRIKA Joseba Derteano Garaiko Triatloi Taldeak mendi martxa eta mendi lasterketa bana antolatu ditu, azaroaren 6ko domekarako. Lasterketa nobedadea da, lehenengoz antolatu dute, eta Asto Trail izena jarri diote ibilbideko tontor bat Astomendi deitzen delako. Mendi martxak, aldiz, hirugarren aldiz egingo du.

Korrika zein mendi bizikletan Garaiko eta inguruetak

bideak ondo ezagutzen dituzte GaraiTTko kideek. Jakintza

Oizera arte, ibilbide bera egingo dute, korrika zein oinez; ondoren, Bolibarrera bideratuko dira lasterkariak

horregaz ibilbidea diseinatzen jardun du Ander Azpitartek:

“Toki batetik igaro, inguruko beste bide batez gogoratu, eta ‘bide hauek lotzeko moduren bat egongo da ba’ pentsatzen genuen. Urte osoan sarritan ibiltzen garenez... Horrela hasi ginen, apurka, puzzlea osatzen”.

Mendi proba 09:30ean hasiko da, Garain, eta 28 kilometro ditu, 1.800 bat metroko desnibel positiboagaz. Ibilbide “gogor samarra” da Azpitarteren ustez. Hasieran, “nahiko igoera luzea

dago” zortzi bat kilometrotan, Oizera heldu arte. Berrizko Sarria auzotik Sarrimendira igoko dira lehenengo, eta Oizera ostean. Handik Kortaguren auzotik (Bolibar), San Kristobalitik eta Maguna auzotik (Muxika) ibiliko dira. Tontor batzuk igarota, Garaira itzuliko dira. Ametsorbe da tontor horietako bat. Zuhaitzen eta harrien arteko aldapa batzuk sokari helduta igotzeko modua egongo da: “Ordurako nekatuta ere joango dira, eta sokekin lagundu egiten dute. Tarte gogorra da, baina, aldi berean, oso polita ere bai”.

Mendi martxa 09:00etan hasiko da, eta 18 kilometro ditu, 1.400 metroko desnibel positiboagaz. Aurten hirugarren aldiz du, eta, sortu zutenetik, parte hartze zabal izan du. Oizera heldu arte, lasterketaren ibilbide bera izango du. Oizen, Askako mendirantz hartuko dute martxakoek.

Lasterketarako izen-emaitea zazpi euro da aurretik, eta hamar egunean bertan. Mendi martxa, berriz, bost euro da aurretik, eta zortzi egunean bertan. Garaiko Triatloi Taldearen webgunean (www.garaitt.com) eman daiteke izena.



Koikili Lertxundi, Zigor Iturrieta, Txomin Arana eta Ander Txakartegi proiektuaren aurkezpenean.

Koikili Lertxundi eta Zigor Iturrieta Helmugak proiektu solidarioko kide dira

Kirolaren bidez, helburu solidarioak bilatzen ditu Helmuga proiektuak

> PILOTA Aimar Esteban Zigor Iturrieta zornotzarrak eta Koikili Lertxundi otxandiarrek Helmugak proiektu solidarioa jarri dute martxan, Ander Txakartegi, Xabat Arrate eta Txomin Aranagaz batera. 2017 eta 2018 bitartean, mendiko bizikletagaz Mongolia, Kuba eta Kanadako hiru proba handitan parte hartuko dute.

2017ko udan hasiko dira, Mongolia Bike Challenge probagaz. Bigarrena, Cuba Titan Tropic, abenduan izango da, eta azkenik, 2018ko uztailean, Canada BC-a egingo dute. Probak hiruak egingo dituzte, eta txandatu egingo dira: Iturrieta Mongolian izango da, eta Lertxundi Kuban. Euskara, kirola, natura eta pertsonak izango

dira proiektu honen ardatzak. Bost kirolari euskaldunek Euskal Herriatik mundura zabaltzeko eramango dituzten marka guztiak bertakoak izatea gura dute, Koikili Lertxundiren esanetan: “Gure nortasuna mundu osoan zabaltzeko gura dugu. Kirola, natura, pertsonak eta euskara maite ditugunontzat, horixe da nortasuna”.

Bira antolatzeko epe egokia bilatzen dihardute

> TXIRRINDULARITZA J.D.

2017an Emakumeen Bira antolatzeko epe egoki baten bila dabiltza. Espainiako federazioa UCIgaz hartuemanetan jarri da gai eztabaidatzeko, baina oraingoz ez du zentsu horretan bestelako aurrerapausurik eman. Birako antolatzailerak adierazia dute Bira ez dutela otsailean antolatuta UCIn proposatu moduan, baldintza klimatologikoengatik ez delako sasoi aproposa, ezta apirilean aurtengo datetan ere WWTko lasterketa batez bat egiten duelako. Birako antolatzailerak erabaki horregaz “erabat ados” dagoela adierazi du Agurtzane Elorriaga Bizkaia Durango taldeko zuzendariak. Emakumeen Bira WWT-an sartu ezik Bira ez antolatzailerako erabakiari, aldiz, gehiegi deritzo eta antolatu beharko litzatekeela uste du.

AGENDA
> FUTBOLA
BIGARREN B MAILA (gizonak)
Amorebieta - Toledo · Domekan, 12:00etan, Urritxen.
